

Jarduerari baja ematea

1. Lizentzia/jarduera-jakinazpen baten titularra izanez gero, zer egin behar da baja emateko eta noiztik izaten da baja?

Baja eskaera Udalean erregistratu behar da, Udalak horretarako prestatuta duen ereduaren arabera. Udalaren webgunean eskuratu daiteke eredia. Eskaera erregistratzen den unetik bertatik izaten ditu ondorioak bajak jardueraren sustatzailearentzat (titularra).

“**Jarduera sailkatuaren baja**” esteka erabil dezakezu horretarako.

Hala ere, jarduerari baja emateak ez dauka interes edo ordena publikoaren kontra joaterik, eta ezta besteri kalte egiterik ere. Hori dela eta, lokalaren jabe ez den beste pertsona batek tramitatzen badu baja, hilabete emango zaio lokalaren jabeari jardueraren sustatzaile izatea hartzeko, hartu nahi badu.